



EBAZPENA, 2022ko urriaren 28ekoa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, Lehendakaritzaren 2022rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa aldatzen duena.

Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2022ko otsailaren 9ko Ebazpenaren bidez, Lehendakaritzaren 2022rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu zen, Plan hori 2022ko uztailaren 21eko Ebazpenaren bidez aldatu zen.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak Diru-laguntzen Plan Estrategikoa bigarren aldiz aldatzeko eskatu du, honako hauei buruzko datuak eguneratzeko:

1.- KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIARI DAGOZKION DIRU-LAGUNTZEN NEURRIAK (2025eko KANPO HARREMANETARAKO PLANAREkin lotuta, 2025 EUSKADI BASQUE COUNTRY Nazioartekotzeko Esparru Estrategian integratua).

1.4.- EUSKAL ETXEEI ETA EUSKAL ETXEEN FEDERAZIOARI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK (Jarduerak eta funtzionamendua)

Ebazpen honen xedea da Lehendakaritzaren 2022rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, Plana Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren 2022ko urriaren 26ko Ebazpenaren bidez egindako kreditu-aldaketara egokitzeko xedez.

Horren ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2022ko otsailaren 9ko Ebazpena aldatzea, euskal etxeentzako eta euskal etheen federazioentzako dirulaguntzei buruzko datuak eguneratzeko (jarduerak eta funtzionamendua).

Bigarrena.– Ebazpen honen eranskinean aurreikusitakoaren arabera, euskal etxeentzako eta euskal etheen federazioentzako dirulaguntzen fitxa aldatzea (jarduerak eta funtzionamendua)

Hirugarrena.– Ebazpen hau argitaratzea dagozkion bitarteko ofizialen bidez eta, betiere, Lehendakaritzari dagokion webgunean: www.euskadi.eus.

Jesús Peña Martínez
Lehendakaritzaren idazkari nagusia